



# ONGARRI

**BIZKAIKO NEKAZARIEN KOOPERATIBA ETA ELKARTEEN ALDIZKARIA**  
**REVISTA DE LAS ASOCIACIONES Y COOPERATIVAS AGRARIAS DE BIZKAIA**

Sehilabetekaria / Publicación semestral

Julio / Uztaila 2021







# HAZTEKO KONFIANTZA

CONFIANZA PARA CRECER

## ZURE ETORKIZUNeko PROIEKTUAK FINANTZATZEN DITUGU

LABORAL Kutxan lehen eskutik ezagutzen ditugu nekazaritza-sektoreko beharrak. Horri esker, finantzaketa sendo baten laguntza eman ahal dizugu, zure etorkizuneko proiektuetan berme osoz aurrera egiteko.

Kontsulta iezaguzu, erraztasun guztiak emango dizkizugu.

---

## FINANCIAMOS TUS PROYECTOS DE FUTURO

En LABORAL Kutxa conocemos las necesidades del sector agrario de primera mano. Eso nos permite ofrecerte el apoyo de una financiación fuerte para afrontar tus proyectos de futuro con garantías.

Consúltanos, te daremos todas las facilidades.



**LABORAL**  
kutxa



## EDITORIAL/EDITORIAL

Estimados amigos/as:

Es un placer volver a comunicarnos con vosotros con este cuadragésimo segundo número de Ongarri, nuestra revista de las Cooperativas y Asociaciones Agrícolas y Ganaderas integradas en LORRA S.Coop.

En este periodo tan convulso en el que continuamos sufriendo la pandemia de la COVID-19 y en donde el primer sector sigue desarrollando un papel fundamental para poder abastecer de alimentos a una sociedad vizcaína confinada en su municipio y/o territorio, empezamos a ver la luz al final del túnel gracias a la vacunación de la población... Esperemos poder pasar esta pesadilla en el presente ejercicio.

En este número os damos a conocer las distintas actividades que se han venido desarrollando durante los primeros seis meses de 2021, desde la edición del último Ongarri, por las entidades asociadas y/o participadas. Nos encontramos, además, en un ejercicio en el que estamos cumpliendo el 35 aniversario de LORRA prestando servicios al Primer Sector de Bizkaia.

Entre las actividades que os presentamos hay reseñas de noticias sobre distintas subastas online de ganado vacuno de carne, ya que los concursos y ferias de promoción de nuestros productos agrícolas y ganaderos siguen anulados por la alarma sanitaria. Os damos cuenta de eventos de interés ocurridos en este periodo por parte de LORRA o de nuestras organizaciones asociadas y/o aliadas, informes de divulgación técnica o relativas a actividades agro-ganaderas... Además de otros temas y/o noticias de interés ocurridos durante este periodo y que hemos creído importante incorporar en este Ongarri.

Bueno, seguimos atendiendo vuestras sugerencias y comentarios sobre la revista y os invitamos a participar, si así lo desáis, con algún artículo sobre cualquier tema que os interese publicar.

Esperamos que este número sea de vuestro interés y agrado, consiguiendo con ello representar la actividad conjunta desarrollada por nuestra estructura durante este periodo.

LORRA S. Coop.

Lagun agurgarriak:

Azegin handiz aurkeztzen dizuegu Ongarri aldizkariaren 42. alea. Ongarri LORRA sozietate kooperatiboaren barruan dauden Kooperatiben eta Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Elkarleen aldizkaria da.

COVID-19ak eragindako pandemia jasaten jarraitzen dugun une latz honetan, lehen sektorea ezinbestekoa da udalerrian edo lurraldean konfinatuta dauden bizkaitarrak elikagaiz hornitzeko. Nolanahi ere, badiudi herriarrok txertaketari esker tunelaren amaierako argia ikusten hasi garela, eta espero dezagun amesgaizto hau aurren amaitzea.

Ale honetan 2021eko lehen sei hilabeteetan elkartutako edota partaidetzapeko erakundeek egin dituzten ekintzen berri emango dizuegu. Gainera, aurren 35 urte bete dira LORRAK Bizkaiko Lehen Sektoreari zerbitzua ematen hasi zela. Besteak beste, hauek izango ditugu hizpide: okelatarako behi-azientaren onlineko enkanteak, osasun-alarma dela-eta nekazaritzako eta abeltzaintzako azokak bertan behera gelditu baitira; LORRAK edota elkartutako erakundeek eta erakunde aliatuek egindako ekintzak; eta txosten teknikoak edo nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren lotutakoak.

Aurrekoetan moduan, aldizkariaren gainera iradokizunak eta iritziak kontuan hartzen jarraituko dugu. Era berean, bertan parte hartzea animatu nahi zaituztegu. Horretarako, interesgarritzat jotzen duzun edozein gairen gainera gure artikulua idatz dezakezue.

Alea zuen gustukoa izatea espero dugu, eta denbora-tarte honetan guztion artean egindako lanaren isla izan dadila.

LORRA S. Coop.

## ONGARRI

## ALBISTE LABURRAK / NOTICIAS BREVES

4

## ALBISTEAK / NOTICIAS

- Food 4 Future 8
- LORRA ayuda a 13 jóvenes a emprender en el agro vizcaíno 9
- Sektorea komunikabideetan 10
- Txakolinaren Eguna 2021 12
- LORRA implanta su primer plan de igualdad 13
- Abereak enkantean online jartzeko lehen plataformak sortu du LORRAK 14
- Reunión del GO GESVAC4.0 15
- Resumen de las actuaciones del CRAF 16
- Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren gobernu berriak LORRA bisitatu du 17
- KONFEKOOPen Ohiko Batzar Orokorra 18

## AZOKAK / FERIAS

- Ferias y concursos ganaderos 19
- Txotx 2021 23

## BOLETINA / BOLETIN

- Resilience For Dairy, un recorrido hacia la ganadería sostenible 24

## BATZUK / OTROS

- LA PAC que nos viene 25
- Zientzia fikzioa landa-eremura ailegatu da 28
- Entrevista al director-gerente de LORRA 30

## ERREZETA/RECETA

- Conejo a la crema de cava con arroz salvaje 32



Revista cofinanciada por el convenio suscrito con el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia.

## Argitaratzailea / Edita:

Lorra Koop. / Lorra S. Coop.

## Kordinaketa eta idazketa / Coordinación y redacción:

Lorra Koop. / Lorra S. Coop.

## Itzulpenak eta maketazioa / Traducción y maquetación:

Totoan TEEF

## Inprimaketa / Impresión:

Gertu

## Lege-gordailua / Depósito Legal:

BI-82-99



## Agur, Manu!

El mundo del txakoli llo-  
ra la pérdida de un referente  
en Bizkaiko Txakolina: Manu  
Calera, cuerpo y alma de  
Bodegas Virgen de Lorea,  
nos dejó el último día del  
pasado mes de marzo. Sin  
duda, ha sido un referente en  
el mundo del txakoli ya que  
fue presidente de la asocia-  
ción BIALTXA e impulsor de  
la Denominación de Origen  
Bizkaiko Txakolina, pero so-  
bre todo un gran profesional,  
buen compañero y excelente  
persona. Goian Bego!



## MIBAn sartu da GOIMAR

Bizkaiko pentsu-ekoizle nagusiek bat egin, eta agertoki berria sortu dute Euskadiko nekazaritza- eta abeltzaintza-sek-  
torerako. Horrela, GOIMAR sozietate mugatua MIBA koope-  
ratibaren barruan sartu izanak ekarri du, alde batetik, koope-  
ratiba sendoagoa izatea, eta bestetik, Euskadiko abeltzainei  
zerbitzua emateko proiektu berri bat.

Bat-egitearen ondorioz, pentsua ekoizteko hiru instalazio dituen enpresa bat sortu da, familiatan edo espezietan espe-  
zializatuko dena. Izan ere, horixe hain zuzen eskatzen dabil  
sektorea aspalditik, elikagaien kalitateari eta segurtasunari  
dagokienez, animalien elikadurak berme handiagoa izateko  
eta, horrela, kontaminazio gurutzaturik ez egoteko.

Arduradunen esanetan, bat-egitearen bidez, zerbitzuak  
eta kudeaketa zentralizatuko dira eta lantegien ekoizpen-pro-  
zesuak hobetuko dira; hortaz, etekinak eta lantegi bakoitzean  
dauden pertsona-kopurua optimizatuko dira. Halaber, azpi-  
marratu dute etorkizuneko proiektu berria sortzeko unea aile-  
gatu dela, sektoreari zein langileei poza ematen diena.

## Desarrollo de productos cárnicos Eusko Label

Tradicionalmente asociamos la producción de productos curados con determinadas regiones y su elaboración con la carne de cerdo. Son productos muy apreciados por el consumidor y de gran valor añadido.

Harakai S. Coop., cooperativa ganadera dedicada a la producción y comercialización de vacuno y ovino, en su afán por innovar y poner en el mercado nuevos productos que respondan a las demandas del consumidor en aspectos como las características sensoriales, el producto local, la sostenibilidad y la calidad, ha hecho una apuesta por desarrollar una gama completa de productos cárnicos curados-madurados a partir de carne de vacuno Eusko Label. El proyecto Cured Behi, que comenzó en octubre de 2019 y se ha desarrollado a lo largo de todo el 2020 gracias al programa I+D+i 2019 del departamento de Calidad e Industrias Alimentarias del Gobierno Vasco, ya muestra los resultados finales. Se han desarrollado tres productos embutidos curados: chorizo sarta, chorizo y salchichón curado y cecina de vaca. Todos ellos cumplen las características para ser un derivado cárnico con distintivo Eusko Label, ya que han sido elaborados con dicha carne. Durante el proyecto, además del desarrollo y formulación de estos productos, se han realizado controles de calidad y catas para validar los productos y seleccionar aquellos mejor valorados, proceso que ha sido llevado a cabo de la mano de LEARTIKER Tecnología de Alimentos gracias a su conocimiento y experiencia en el desarrollo de productos cárnicos. Harakai ha realizado una valoración muy positiva tanto del proyecto como de la gama de productos que se ha desarrollado gracias al mismo y, ahora, trabaja para poder comercializar estos productos a partir del otoño de 2021.



## Bitxia Berria aukeratu dute txakolin instituzional gisa 2021erako

Bizkaiko Txakolina Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzaileak Bitxia Berria txakolina aukeratu du txakolin instituzional gisa 2021erako. Txakolin hori Talleri Berria upeltegian ekoizten da, Morgan. Bizkaiko Txakolina Jatorri Deituraren ardoen balio bereizgarrien ordezkaria da txakolin instituzionala eta kontseilu arautzailearen ekitaldietan erabiltzen da.

Aukeraketa Mendibile jauregian egin zen, erakundearen egoitzan hain zuzen ere, eta dastatzeko Bizkaiko Txakolinaren Kalifikazio Dastatze Batzordeko sommelier hauek hartu zuten parte: Iñaki Suarezek, Roberto Sarriugartek, Miren Yuberok, Javier de la Cruzek, Asier Dañobeitiak eta Jose Mari Agirrek. Baita Rotary Clubak aukeratutako Jose Ignacio Junguituk ere. 2021eko txakolin instituzionala lehenengo aldiz dastatu zen Bizkaiko Txakolinaren Egunean. Ekitaldia apirilaren 29an egin zen San Mamesen. Horrela, Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Arautzaileak urteko txakolina aurkezteko ohiko hitzordua berreskuratu zuen, iaz hura bertan behera utzi behar izan ondoren.



## Nace el primer centro lácteo de Euskadi

El centro que dirigirá LEARTIKER nace para ser un referente en el sector lácteo a nivel del País Vasco, impulsando la colaboración entre los agentes del sector. El centro LEARTIKER, en colaboración con la Fundación HAZI y el Gobierno Vasco, pone en marcha el primer centro lácteo del País Vasco, motivado por las necesidades del sector lácteo, con el objetivo de potenciar dicho sector en la Comunidad Autónoma Vasca.

LEARTIKER ofrecerá a través de este centro asesoramiento técnico avanzado, formación especializada, desarrollo de proyectos de innovación y otros servicios basados en la seguridad alimentaria. Será un centro de referencia para los productores del sector lácteo que tendrán la garantía de recibir un servicio avanzado, personalizado y eficaz y se basará en la colaboración permanente con otros agentes del sector.

## Cambios en la presidencia de KAIKU

Valentín Novales Elejalde, ganadero alavés de vacuno de leche, fue elegido a finales del 2020 nuevo presidente de KAIKU S. COOP, conocedores de su total compromiso con el movimiento cooperativo y de la importancia y vinculación que siempre ha tenido en las cooperativas de las que forma parte. En la actualidad, el consejo rector de la cooperativa está formado por 13 representantes de Gipuzkoa, Bizkaia, Navarra y Araba.

Valentín sustituye a Joxe Urrestarazu, ganadero guipuzcoano que durante 14 años ha estado al frente de la presidencia de KAIKU. Desde 1953, KAIKU S. COOP., se ha dedicado a la recogida, transformación y transporte de la leche que producen sus explotaciones socias, así como a la transformación y comercialización de productos lácteos a través de su participación en IPARLAT y KAIKU CORPORACIÓN ALIMENTARIA.





## FoodRUs proiektu europarraren partaidea da ELIKA

ITURRIA : ELIKA

Proiektuaren helburua da elkarlaneko elikadura-sistema zirkular berritzaile bat garatzea, nekazaritzako elikagaien katean elikagaiak xahutzea eta galtzea murrizteko. Horretarako, lankidetzako hainbat berrikuntza-moduren bidez, FoodRUs proiektuak 23 konponbide zirkular ezarriko ditu, tokiko elikadura-sistemetan eragile guztiak inplikatur: nekazariak, eraldatzaileak, banatzaileak eta kontsumitzaileak.

Konponbideak esparru hauetan hartuko dira:

-Teknologikoan: *blockchain* konponbideak, elikagaiak xahutzea eta galtzea kudeatzeko.

-Sozialean: heziketa-materiala eta herritarrentzako zientzia-jarduerak, kontsumo-ohitura jasagarriak sustatzeko.

-Antolakuntzan: tokiko kontsumoa eta dohaintza sustatzeko sareak.

-Fiskalean: *Pay As You Throw* moduko eskema berriak.

Konponbideak hiru proiektu pilotutan probatuko dira: Euskadiren eta Nafarroaren arteko proiektu batean, barazkiak eta entsalada prestatuak ardatzat dituenak; haragian eta



arrainean oinarritutako proiektu daniar batean; eta ogiaren balio-katea aztertzen duen egitasmo eslovakiar batean.

ELIKAk eginkizun bikoitza izango du proiektuan. Alde batetik, Europako eta nazioarteko proiektuen eta ekimenen arteko lankidetzak koordinatuko du, elikagaiak alferrik galtzearen eta xahutzearen inguruko kontuak aztertzeko. Horretarako, lankidetzak sare bat sortu da, esperientziak eta emaitzak partekatzeko, sinergiak eta osagarritasunak antzemateko eta baterako ekintzak osatzeko. Lankidetzak sare horren baitan Europako 27 egitasmo daude. Bestalde, Euskadik eta Nafarroak elkarlanean sustatutako landareei buruzko proiektuan hartzen du parte, elikagaiak xahutzearen kontrako euskal estrategiaren esperientziak zabalduz eta sortutako ezagutza bideratuz.

## NEIKER trabaja en el desarrollo de una vacuna frente a la tuberculosis animal

FUENTE: ESTRATEGIA EMPRESARIAL

Coincidiendo con el Día Mundial de la Tuberculosis que este año se ha celebrado en marzo, NEIKER subraya la importancia de la vigilancia de esta enfermedad, acción que constituye una de sus líneas de trabajo. En los laboratorios del Departamento de Sanidad Animal de NEIKER se monitoriza la prevalencia de un importante número de enfermedades en las especies silvestres de Euskadi, entre las que se incluyen las planteadas en el plan estatal de vigilancia como es el caso de la tuberculosis.

En esta línea, además, NEIKER trabaja en el desarrollo de una vacuna frente a la tuberculosis. El objetivo inicial fue el control de la tuberculosis en jabalí, ya que en otras comunidades supone un gran problema, pero posteriormente se ha trabajado en otras especies como ciervo, tejón y terneros. En todos los casos se han observado efectos mejores o equiparables a los obtenidos con la vacuna de BCG, considerada la vacuna de referencia y la que se ha venido usando en personas.

NEIKER, a través de su Departamento de Sanidad Animal, analiza anualmente muestras de una media de 150 jabalíes y ciervos para la detección de tuberculosis. El porcentaje de aislamientos es bajo, ronda el 1,1 % de los animales analizados. Sin embargo, la vigilancia de la fauna silvestre es de vital importancia porque algunas enfermedades, entre ellas la gripe aviar, la peste porcina o la tuberculosis, pueden llegar a las granjas a través de estos animales.

En los análisis también se encuentran habitualmente otras micobacterias no pertenecientes al Complejo *Mycobacterium tuberculosis*, denominadas micobacterias no tuberculosas. Algunas de ellas

no tienen implicaciones sanitarias, pero sí interfieren en las técnicas de diagnóstico que se utilizan en los programas de erradicación de la tuberculosis animal dando lugar a falsos positivos. Esto puede implicar el sacrificio de animales que no están infectados de tuberculosis, lo que supone un coste innecesario.

Neiker trabaja en dos proyectos de investigación, uno financiado por la UE (Interreg-POCTEFA) y otro por el Ministerio de Ciencia e Innovación (MICINN), con el objetivo de identificar las bacterias causantes de las interferencias en el diagnóstico de la tuberculosis y evitar que los resultados de las técnicas de diagnóstico empleadas se vean alterados por su presencia.

Además, se profundiza en el estudio del control de la enfermedad mediante vacunación y el prototipo original será uno de los que se incluirán en los estudios, además de otros que se están desarrollando en NEIKER.





## Diplomatu berriak Artzain Eskolan

Artzainak trebatzeko ikastaroa hogeita laugarren aldiz egin da eta Artzain Eskolak hura amaitzeko ekitaldia egin zuen pasa den martxoan. Ohikoa denez, ikasleei makila bana eta diploma bana eman zizkieten. Aurtengo ikasturtean 13 neska-mutil ibili dira eskolan. Pandemiak eragindako edukiera-murrizketak direla eta, diplomatu berriez gainera, soilik erakundeetako ordezkariak egon ziren ekitaldian. Haien artean, hurrengo hauek izan ziren: Bittor Oroz, Eusko Jaur-laritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburordea; Iزار Elorza, Oñatiko alkatea; Xabier Arruti, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko zuzendaria; Arantxa Ariztimuño, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendari nagusia; Peli

Manterola, HAZI fundazioko zuzendaria; eta Batis Otaegi, Artzain Eskolaren zuzendaria.

Arantzazuko eskolaren helburua da Euskadin artzaintzak eta laxa arrazako ardiek bizirautea. Horretarako, teoriarik eta praktikan oinarritutako prestakuntza eskaintzen die ardi- eta ahuntz-sektoreetan lan egin nahi duten pertsonari. Praktikak baserrietan edo ustiategietan egiten dira. Amaiera-ekitaldian, Orozek azpimarratu zuen ardi- eta ahuntz-sektoreei prestigioa eman behar zaiela, gazteak milaka urteko jardueraren horretara erakaritzeko. "Etorkizuna duen eta lehiakorra den sektore bat eskaini behar dugu, zeren eta giltzarria baita belaunaldien arteko erreleboa egon dadin, bokaziozko lanaz gainera, artzaintza jardueraren ekonomiko aitortua ere izan dadin, enplegua, aberastasuna eta ongizatea sortzen dituen, eta, azkenik, funtsezkoa izan dadin, Euskadiko lehen sektorea eta landa-eremua suspertzeko".

## Euskal Sagardoak 2020ko sagardoa aurkeztu zuen Donostiako Miramar jauregian

Ekitaldian, Euskal Sagardoa Jatorri Deitura osatzen duten Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako 48 ekoizleen 70 produktu aurkeztu ziren. Sagardoa egiteko, 250 ekoizleren sagarrak erabili ziren, bertoko sagar-barietate bakoitzak bere ezaugarriak eta kalitate-ziurtagiria zituela. 2020ko uztia ez zen ugaria izan eta orotara 1,2 milioi litro sagardo ekoiztu dira jatorri izendapenerako, bi milioi kilo sagar erabilita, aurreko uztaren herena. Izaera handiko sagardoak dira, mamitsuak ahoan eta iraupen luzekoak. Jatorri deituraren sustatzaileen esanetan, urte askoko lanaren emaitza da Miramar jauregian aurkeztutako sagardoa, eta, batez ere, sagardoaren etorkizunaren aldeko apustu garbia. Etorkizun hori elkarrekin lantzen ari dira bai administrazio publikoak, bai sagarraren eta sagardoaren sektoreak. Bestalde, sektorea baikor agertu zen udari begira eta HikNik kanpaina aurkeztu zuen aire zabalean sagardoa kontsumitzea bultzatzeko: zuk janaria, nik sagardoa.





# Food 4 Future

Ekainaren 15etik 17ra bitartean, Bilbo berrikuntzaren hiriburu bihurtu zen FoodTech arloan, izan ere, Bilbao Exhibition Centren (BEC) lehen aldiz egin zen Food 4 Future – Expo FoodTech ekimena. Nazioarteko egitasmoa izan zen, elikagaien eta edarien industrietako profesionalak antolatuta eta aipatutako sektoreetako profesionalentzat eginda, eta bertan ahalegina egin zen sektorearen erronka handiei erantzuna emateko.

Sektorearen erronkak hauek dira: prozesuak teknologien bidez nola optimizatu, negozio-eredu jasangarriagoak eta eraginkorragoak nola garatu eta elikagai eta osagai berriak ekoizteko joerak zeintzuk diren. Food 4 Future egitasmoak 22 herritatik etorritako 5.417 bisitari bildu zituen Bilbon. Gainera, 29 herritako 4.911 lagunek streaming bidez jarraitu zioten egitasmoari.

“Ekitaldi honen harira, talentu handia batu da hirian, eta hori aukera paregabea da euskal enpresak munduko edozein lekutako enpresa espezializatuekin harremanetan ipintzeko eta eza gutza trukatzeko”, esan zuen Juan Mari Aburtok, Bilboko alkateak, itxiera-ekitaldian. Bittor Orozek, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeak, bestalde, sektoreko profesional guz-

teiei egin zien Euskadiko Food Global Ecosystem egitasmoan parte hartzeko gonbitea, Food Tech industriaren mugarik gabeko aliantza-plataforma gisa.

Sergio Fabregatek, Food 4 Future-ko zuzendariak, nabarmendu zuenez, “sektoreko profesional guztien biltze bikoitza da topaketa, eta horrek ahalbidetu du elikagaien industriak harremanak berriro lantzea, negozioa bultzatzea eta Bilbao FoodTech berrikuntzaren hiriburu bilakatzea”. Beste aldetik, Rogelio Pozok, ekitaldiaren zuzendariak eta AZTIren CEOk, azpimarratu zuen digitalizazioa palanka dela, “nekazaritzako elikagaien industriari aukera emango baitio eredu jasangarriagoak eta elikadura osasungarriagoa garatzeko. Bide batez, kontsumitzaileengana modu gardenago batean hurbildu ahalko da”.

Nazioarteko 349 hizlari aritu ziren biltzarren lehen edizioan eta 56 hitzaldi egin ziren, zeinetan elikagaien sektorearen eta bere segmentu guztien (haragia, kontserbak, arrantza, esnea, olio, zerealak eta edariak) erronka nagusiak aztertu baitziren. Besteak beste, enpresa hauek izan ziren bertan: Sigma, EROSKI, Unilever, Coca-Cola, Mahou-San Miguel, Campofrio, Bonduelle, Heineken, Capsa, Iparlat, Nueva Pescanova, Gallina Blanca, Angulas

Aguinaga, EIT Food, Danone eta Apex Taldea. Eta erakunde hauek: Melinda & Bill Gates Fundazioa, Euskal Herriko Medikuntzaren Errege Akademia, Recercako Vall d’Hebron Institutua, Danone Nutricia Research eta Tecnalia Research & Innovation Fundazioa. Era berean, 197 erakusketari baino gehiago egon ziren, eta 461 berrikuntza baino gehiago aurkeztu ziren elikagaien eta edarien industrietarako. Berrikuntza aurkeztu zituztenen artean izan ziren AgroBank, Siemens, AZTI, CNTA, IRTA, Ibermática, Lantern, Inser Robotica, Marine Instruments, Trace Food, Combi Embalaje, PWC eta Tecnalia.

Food 4 Future – Expo FoodTech egitasmoa NEBEXTek eta AZTIk antolatuta zuten Bilboko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Horrez gain, bazkide estrategiko hauen babesa ere izan zuen: ICEX, EIT Food, HAZI, ILSI Europe, Food for Life Spain, SPRI Taldea, Eatable Adventures, IASP (Parke Zientifikoen eta Berrikuntza Guneen Nazioarteko Elkarte) eta Santelmo Business School. Euskadiko balio-kateko beste ordezkari hauek ere hartu zuten parte: NEIKER institutuak, Agri-tech ikerketan; AZTIK, FoodTech berrikuntzan; Basque Culinary Centrek, ikerketa gastronomikoan; eta Euskadiko Elikadura Klusterrak.





# LORRA ayuda a 13 jóvenes a emprender en el agro vizcaíno



La cooperativa LORRA ayudará a trece jóvenes que quieren emprender en el primer sector a crear sus negocios en Bizkaia. Esta entidad de servicios agrícolas y ganaderos se encarga de realizar el servicio de acompañamiento al emprendizaje del programa Gaztenek, coordinado por la Fundación HAZI junto con la Diputación Foral de Bizkaia. Su misión es hacer realidad los nuevos proyectos aprobados cada año y prestar apoyo durante los cinco primeros años de actividad para consolidarlos.

Este año los proyectos se han reducido casi a la mitad respecto a los 25-30 que se estaban registrando anteriormente, lo que para LORRA se explica por la incertidumbre derivada de la pandemia, “que seguramente habrá hecho desistir a más de una persona de dar el paso de emprender y realizar inversio-

## Quieren poner en marcha sus proyectos en 2021, en el marco del programa Gaztenek

nes, en espera de ver cómo evoluciona la situación”.

Esta situación, sin embargo, no ha desanimado ni frenado los planes de las trece personas que con su proyecto bajo el brazo pretenden instalar sus negocios a lo largo del 2021, accediendo al plan de ayudas disponibles. Se trata de tres mujeres y 10 hombres con iniciativas empresariales muy variadas, algunas de ellas condicionadas a obtener los permisos y licencias correspondientes para llevarlas a cabo. Son jóvenes

con edades comprendidas entre 20 y 38 años, a excepción de un veterano con más de 41 años.

De las nuevas incorporaciones, siete harán el relevo generacional a sus familiares en explotaciones ya existentes, algo a destacar en un sector muy necesitado de savia nueva, y los seis restantes se implantarán por primera vez en el sector.

En cuanto a la actividad, tres proyectos corresponden al ámbito de la agricultura y 10 al de la ganadería. Las explotaciones siguen las tendencias que se observan en los últimos años, como la producción ecológica, donde se enmarcan cinco proyectos que siguen procedimientos de explotación agroecológica tanto en producción animal como vegetal. Despuntan las cinco incorporaciones en explotaciones ya existentes de vacuno carne. Además, hay tres explotaciones hortícolas en invernadero, tres tienen ovino de leche (uno de ellos combinado con equino y vacuno de carne) y dos de avicultura de puesta –huevos camperos-. También hay proyectos que se alinean con nuevos nichos de actividad como uno de helicicultura (cría de caracoles) que combina con producción de setas shiitake.

A través de su servicio de emprendizaje, LORRA guiará a estas personas emprendedoras mediante el proceso establecido en el programa: primero, hasta la instalación del negocio y la resolución de la solicitud, y posteriormente, realizando una tutoría de la actividad en sus primeros años.

El pasado ejercicio LORRA realizó estas actuaciones con un total de 189 proyectos abiertos entre los años 2012 y 2020. De ellos se cerraron 14 proyectos de entre tres y cinco años de vida, ya incorporados en el sector, que prosiguen su andadura sin acompañamiento. El resto son empresas que siguen contando con ayuda en su primer, segundo, tercer, cuarto y/o quinto año de actividad. En este 2021 se ha comenzado a trabajar con 11 nuevos expedientes para su posible instalación en próximos años.



Oxer Bastegieta



SAT Lurkoi



Miren Ardeo

## Sektorea komunikabideetan

Urtearen lehen seihilekoan, sektorea behin baino gehiagotan agertu da egunkarietan, irratan eta telebistan, nahiz eta COVID-19ak eragindako pandemiak aurtan ere protagonista izaten jarraitu.

Horrela, urtarrilaren hasieran, *Deia* egunkarian erreportajea egin zioten Kortezubiko Oxer Bastegietari, eta berari buruz esan zuten Euskadiko ekoizlerik berezietako eta isilenetako bat zela. Bastegietak bi jatorri deituratuko ardoak ekoizten ditu: Errioxa eta Bizkaiko Txakolina. Gainera, bere ardo beltzak eta txakolinak oso preziatuak dira *Parker* gidan. Adierazi zuten, bere mahastiak maite ditu eta hitz egiten die, zuhaitzei hitz egiten dien moduan. Erreportajea amaitzeko, aitari buruzko aipamena egin zuten: oso aita ospetsua du, eta, modu batean edo bestean, bere antza.

Urtarrilean ere jakin izan genuen Lurdeia nekazaritza-turismoko establezimendua beste golardo bat jaso zuela. Hura SAT Lurkoik kudeatzen du Busturrian, eta Bilboko Ganberak antolatutako Retail Digital saria eman zioten establezimendu jasagarri onenaren kategorian. Gainera, Eusko Jaurilaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak ere aukeratu du erreferentziatzko ostatu turistiko jasagarri moduan, Europako etiketa ekologikoari esker.

SAT Larrabeko Kepa Larrabe ere elkarriketatu zuten urtarrilean EITBn, *A bocados* saioan hain zuzen ere. An-



Kepa Larrabe



Jakeline Txertudi

der Gonzalezek eta Gabriela Uriartek galdetu zioten bere olioek ustiategiari buruz. Ustiategia Fikan du, eta olioek lurrean erruten dituzte arrautzak. Gonzalezen ekoizpen-sistema jasagarriagoa da eta animalien ongizatea hartzen du kontuan.

Miren Ardeok Gatican du ustiategia eta hori bere senarrarekin eta hiru semeekin –Erlantz, Endika eta Lander–



SAT Lurkoi



Felix Aras

kudeatzen du. Otsailean, *Deia* egunkariaren erreportaje batean azaldu ziren, zeren eta udalerriko familiarik behar-tsuenei eman baitzieten 3.000 litro esne ekoizteak balio duen diru-kopurua, COVID-19ak eragindako pandemian laguntzeko asmoz. Leixuri Arrizabalaga alkateak biziki eskertu die diru ekarpena, eta hori Gizarte Zerbitzuen bidez banatuko da.





Itziar Insausti



Charo Garcia eta Daniel Abaunza



Bizkaigane-Txapelkoop



Garikoitz Rios



Andoni Rekagorri

Bost lagun dira, eta barazki ekologikoak ekoizten eta saltzen dituzte Solluben. Gainera, bertan ere duten landetxea oso ezaguna da munduan. Esaten dutenez, ekologia da euren filosofia.

Apiirlean ere Kortezubiko Nanike ustiategia azaldu zen gehigarri berean. Ustiategia Jakeline Txertudik eta bere senarrak, Fermin Urizarrek, kudeatzen dute eta bertan, beste produktu batzuen artean, Gernikako indaba ekoizten eta merkaturatzen dute. Indabak maiatzean eta ekainean ereiten dituzte, eta uztia «jezte» Jakelinek esaten duen moduan— handik hiru hilabetera, nahiz eta, jakina denez, nekazaritza tradizionalean gauza gutxi matematikaren arabera dira.

Felix eta Mikel Arasek esnetarako behi-hazienda dute Karrantzan, eta euren ustiategiari buruzko erreportajea egin zuten Ander Gonzalezek eta Gabriela Uriartek aurkeztu duten *A bocados* saioan (EITB). Anaiek 220 behi dituzte ahalik eta baldintza onenetan, eta 44 hektareako lurzorua ere badute. Bertan animalientzako bazka ekoizten dute. KAIKU kooperatibaren bazkideak dira eta 1,9 milioi litro esne baino gehiago ekoizten dute.

*La Gaceta de Salamanca* artikulua bat idatzi zuen Andoni Rekagorrik Martin de Yeltes udalerrian duen ustiategiari buruz. Rekagorrik betizu arrazako behiak ditu eta, artikulua horretan azaldu zuten, gandua Euskadin eta Salamancan du; zehatz-mehatz, 15 buru ditu Gaztelan. Modu horretan, behiek bruzelosia edo tuberkulosia izanez gero, osasun arloko hutsuneak ekar ditzakeen arazoak ekiditen ditu.

Apiirlean, SAT Lurkoi berriro agertu zen komunikabideetan, *El Correo* egunkariaren *Jantour* gehigarrian hain zuzen ere. Argitalpenean, duela 37 urte sortutako ustiategiaren nondik norakoak aurkeztu zizkiguten: etxea 1989an eraiki zuten, eta lehenengo ortuak eta berotegi bat atundu. Gaur egun, eta berotegien harira, 3.200 metro koadro dituzte, eta hektarea bat aire zabalean.

*El Correo* egunkariaren *Jantour* gehigarrian ere, erreportajea idatzi zuten pandemiaren eraginez txakolinaren sektorea jasotzen ari den egoerari buruz: salmentek % 25 eta % 40 artean egin dute behera. Testuinguru horretan, eta Itziar Insausti enologoaren esanetan, Doniene Gorrondonak Bakion duen upeltetegiaren produktua kanpoan merkaturatzeko bideak aztertzen dabilta eta Internet horretarako tresna dute, jarduerari eutsi ahal izateko laguntzen zain daudela.

Bestalde, COPE-Catalunya irratiari, *Tire Milles* irratsaioan, Garikoitz Rios elkarrizketatu zuten. Rios Itsasmendi upategiaren arduraduna da, eta Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Arautzailearen kidea. Irratsaioan txakolinak azken urteetan izan duen bilakaera azaldu zuen, eta adituek asko baloratzen duten ardo bihurtu dela.

Ekainean, *Cronica Vasca* aldizkariak erreportajea egin zuen Errigoitiko Bizkaigane ustiategiaren eredu kooperatiboari buruz. Belaunaldi-ordezkapena egongo da bertan eta prozesu horren ondorioz TxapelKoop bihurtuko da. Horrela, bada, azken hiru urteetan bost gazte sartu dira ustiategian, eta bizigarri berria ekarri dute ustiategira zein sektorerara.

Azkenik, ekainean ere Jack Barietateari buruzko erreportajea egin zuen *El Correo* egunkariaren *Jantour* gehigarrian. Hura sinatu zuen kazetariaren hitzetan, barietate hori «Bizkaiko ortuaren erregea» da. Erreportajea BIHOELeko baratzezain hauek agertu ziren: Urdulizeko Charo Garcia, Morgako Daniel Abaunza eta Gamizeko Pablo Arrate, Bizkaiko baratzezainen elkartearen presidentea dena.

# Txakolinaren Eguna 2021



Apirilean, 2021eko Txakolinaren Eguna ospatu zen San Mamesen. Ekitaldian azpimarratu ziren sektorearen ahalegina, grina eta egiten jakitea, haiei esker kopak urtero “Bizkaiaren zaporez” betetzen direlako. Gainera, kontsumitzaileei egin zitzaizen txakolina ezagutzen jarraitzeko gonbitea, izan ere, konplexurik gabe, munduko beste edozein ardo zurirekin lehiatu daitekeen ardoa da.

Nerea Cuenco sommelieraren esanetan, “begi bistan denez, kolore hori zurbilekoa da, garbia eta oso distiratsua. Sudurrean, intentsitate aromatiko handia du, baita kopan ere; ondoren, fruta zuria-aren usaina du (udarea eta golden barietateko sagarra), azal lodiko limoi berdearen ukitu zitrikoa, ananarena ere bai, eta mihiluaren eta belar freskoaren ukitua. Oso atsegina da ahoan, aurretik esandako aromak dituela, eta amaiara luzekoa, berriro ere landa, mihilua eta belar freskoa gogora ekartzen dituen”. Aurtan, Morgako Bitxia Berria txakolina aukeratu da txakolin instituzional moduan.

Aurreko ekitaldien aldean, 2021eko Txakolinaren Eguna eredu ezberdin

bati jarraituta ospatu da, baina poztasun handiz, iaz ezin baitzen egin. Jose Luis Gomez Querejeta, Kontseilu Arautzaileko presidentea, kezkatuta agertu zen pandemia sektorean izaten ari den eragina dela eta, baina ekoizleen eta ardogileen erantzuna goraipatu zuen. “Lan-erritmoa izugarri azkartu dugu urte bakar batean, komunikazioa eta merkaturatzea. Lantaldeak egokitu ditugu mahatsak batzeko, COVID-19ari aurre egiteko kontingentzia-plan berezia garatu dugu, bideodeien bidez egin ditugu dastatzeak eta trebakuntzak eta webguneak moldatu ditugu online saltzeko, baita banaketa-bideak ere, eskaerei ia berehala erantzun ahal izateko”. Bizkai-ko Txakolina Jatorri Deitura duela 27 urte sortu zen eta handik hona ez da inoiz gaur egungoa bezalako krisirik ezagutu; hala ere, Txakolinaren Egunean argi gelditu zen txakolingileek gogotsu jarraitzen dutela lanean, eta 2020ko txakolina ere bikaina dela.

2019an moduan, iaz ekoizpen handia izan zen, 1,5 milioi litro orotara. Azaldutakoaren arabera, oso mahats heldua

batu zen, gozoa eta orekatua, azidotasun gutxiago zuena, eta azukre pixka bat gehiago. Mahatsen ezaugarrietan udak izan zuen eragina: ohi baino berotsuagoa izan zen eta euri gutxiago egin zuen; ondorioz, irailaren erdialdean mahatsa prest zegoen.

Kontseilu Arautzaileak, ekitaldia antolatzen zuenak, omenaldia egin zion Manu Calerari. Zallako Virgen de Lorea upategikoa izateaz gainera, Calera Bizkaiko Txakolina Jatorri Deituraren sustatzaileetako bat izan zen eta ekitaldia egin baino aste batzuk lehenago zendu zen. Era berean, ohorezko enbaxadore izendatu zuten Patxi Zabala, hasieratik Dastatze Batzordearen kidea izan zena eta iaz hil zena.

Azkenik, beste bi mezulari edo enbaxadore izendatu zituzten 2021erako: alde batetik, Nekatur Euskadiko Nekazalturismo Elkartea, tokiko produktua ikur duena; eta bestetik, Belako musika-taldea, Bizkaiko txakolina bezain “internazionala” dena. Lehen brindisa egin zuten aurtengo txakolin instituzionala erabilita.



# LORRA implanta su primer plan de igualdad

LORRA ha culminado la implantación de su primer plan de igualdad que le permitirá avanzar en la consecución de la igualdad real entre mujeres y hombres en la organización. Se trata de un objetivo en el que LORRA viene trabajando desde hace tiempo, en coherencia con su compromiso con los Objetivos de Desarrollo Sostenible y con la pretensión de ser un referente dentro del primer sector.

El proceso se inició hace un año con el compromiso de la dirección y se ha ido desarrollado en sucesivas fases. Primero se creó la comisión de igualdad, formada por seis miembros que se encargan de la implantación, seguimiento, evaluación y revisión del plan, además de asegurar la participación de todo el equipo de LORRA.

Luego se realizó el diagnóstico de la organización y el diseño del plan de igualdad. El pasado mayo se aprobó y se inició el proceso de implantación, actualmente en marcha.

